

 AMOREBIETA- ETXANOKO UDALA P4800300H	<b>IL0049</b>	<b>Biztanleen Udal Errolda: Erkidegotik kanpoko atzerritarren izen ematearen berriztapena</b>
---	---------------	---

## ZER DA? ZERTARAKO DA?

Bizileku egonkorerrako baimenik ez duten Erkidegotik kanpoko atzerritarren Erroldako izen ematearen bi urtez behingo aldizkako berriztapena da.

## NORK ESKA DEZAKE?

Interesatutako edozein pertsonak (presentziazko izapidea) edo, adingabeen kasuan, gurasoetako bateko edo lege ordezkariak.

## AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

- Atzerritarren berriztapen eskaria (Errolda programa)
- Erroldako izen ematea baieztatzeko jakinarazpenaren aurre-ohartarazpena jaso ondoren, Erroldako izen ematea berriztatzeko eskari eredia bete beharko da.
- Bizileku txartela, Espainiako agintariak emandakoa, indarrean, edo bere nazionalitateko herrialdeko pasaporte indarrean (iraungituta badago, berriztapenaren frogagiria ere aurkeztu beharko da). Berriztapena egiteko, ahal izanez gero Atzerritarren Identifikazio Zenbakia (AIZ-NIE) erabiliko da.
- Adingabeen kasuan, berriztapen eskaria gurasoetako batek edo adingabearen ardura duen lege ordezkariak sinatu beharko du.

## NON ESKATZEN DA?

**Aurrez aurre:**

- [Udaletxea](#)  
Udaletxea  
Herriko plaza z/g, 48340 AMOREBIETA-ETXANO  
Ordutegia: 7:30 - 15:00

## ZENBAT KOSTATZEN DA?

Ez da inolako tasarik edo prezio publikorik ordaindu beharko.

---

## PROZEDURAREN EPEA

Aurreikusitako epea: Berehala

Prozedura arrunta. Legezko gehienezko epea: 3 hilabete

Isiltasun-administratiboaren izaera: Aurkakoa

## ARAUDI APLIKAGARRIA

- [5/1985 Lege Organikoa, ekainaren 19koa, Hauteskunde Araubide Orokorriari buruzkoa](#)
- [7/1985 Legea, Toki Araubidearen oinarriak arautzen dituena](#), 15.1. art.
- [1690/86 Errege Dekretua, uztailaren 11koa, Toki Erakundeen Biztanleria eta Lurralde Mugaketari buruzko Araudia onartzen duena eta Lurralde Mugen Araudia](#) 53 eta hurrengoak
- [14/2003 Lege Organikoa, azaroaren 20koa, 4/2000 Lege Organikoa aldatzen duena.](#)
- [Urtarrilaren 10eko 4/1996 Legea, udal erroldari dagokionean Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legea aldatzen duena.](#)
- [Abenduaren 20ko 2612/1996 Errege Dekretua, uztailaren 11ko 1690/1986 Errege Dekretuak onartutako Toki Entitateen Biztanleriaren eta Lurralde Mugapenaren Erregelamendua aldatzen duena.](#)
- [2015eko martxoaren 16ko ebazpena, Idazkariordetzarena, udalei udal errolbaren kudeaketari buruzko jarraibide teknikoak ematen dizkien 2015eko urtarrilaren 30eko ebazpena argitaratzen duena](#)
- -

## ESKAERA JASO ONDOREN JARRAITU BEHARREKO PROZEDURA

1. Eskatzailearen datuak batu, egiaztatu eta eskaneatu.
2. Datuak biztanleen erroldako aplikazio informatikoan sartu.
3. Artxibatu.

## NORK ONARTU BEHAR DU?

Alkatetza

## IZAPIDETZEKO ARDURA DUEN UDAL SAILA

Zerbitzu Orokorrak - Idazkaritza

## OHARRAK